

Euskal AEko lehen sektorean, 2003. urtean, informazio-teknologietako hornikuntzak ezartzen hasiak ziren oraindik

Lehen sektoreko enpresa gehienak oso txikiak direnez, zailago dute informazioaren eta komunikazioaren teknologietako hornikuntza gehiago izatea

Eustatek, Nekazaritza eta Arrantza Saileko estatistika-organoaren laguntzarekin, informazioaren gizarteari buruzko inkesta egin du lehen sektorean estreinakoz. Inkesta horren datuen arabera, Euskal AEn, 2003. urtean, informazio- eta komunikazio-teknologietako hornikuntzen ezarpena lehen fasean zegoen nekazaritza-enpresetan batik bat, eta, neurri txikiagoan, arrantza-enpresetan.

Euskal AEn, lehen sektoreko establezimenduen (nekazaritza-ustategiak eta arrantza-ontziak) tamaina ez da nahikoa teknologia horiek erabiltzera bultzatzeko; izan ere, establezimendu horiek oso atomizatuta daude, establezimenduen % 97,8k 2 langile edo gutxiago baitute.

Telefono mugikorraren kasuan izan ezik (% 32,1ean erabiltzen da), gainerako oinarrizko hornikuntzak oso gutxi sartuak daude, haien tasek erakusten dutenez, ordenagailuak erabiltzeari dagokionez (% 5,5), posta elektronikoa izateari dagokionez (% 3,4) nahiz Interneteko konexioari dagokionez (% 3,6). Bestalde, ia ez dago webgunea duen enpresarik; izan ere, % 0,4 baino ez daude sarean.

Datu horiek euskal ekonomiako gainerako sektoreekin alderatzen baditugu, ikusten da lehen sektorea besteetatik oso urrun dagoela hornikuntza-mailan.

1. taula: Informazio-teknologietako hornikuntza, ekonomia-sektorearen eta enplegu-geruzaren arabera (ehunekotan).

Sektorea	Ordenagailua			Posta elektronikoa			Internet			Telefono mugikorra		
	Total	< 10	>= 10	Total	< 10	>= 10	Total	< 10	>= 10	Total	< 10	>= 10
Lehen sektorea	5,5	5,1	75,4	3,4	3,3	29,8	3,6	3,5	26,7	32,1	31,8	83,9
Industria	70,6	62,4	95,7	52,8	41,0	89,0	57,0	45,9	91,0	75,0	70,0	90,4
Eraikuntza	52,1	49,2	95,2	28,9	24,8	87,4	37,5	33,9	89,4	85,6	84,9	95,7
Zerbitzuak	60,1	57,9	96,7	44,0	41,4	87,4	46,1	43,8	86,3	58,5	57,7	72,6


Iturria: Eustat.

Lehen sektorean, arrantza-enpresek informazioaren eta komunikazioaren teknologietako hornikuntza gehiago dute nekazaritza-enpresek baino.

Lehen sektorearen barruan, hornikuntza-mailak oso ezberdinak dira nekazaritza-ustiapenak (nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza) eta arrantza-enpresak bereizten badira, azken horietan hornikuntzen ehunekoak askoz handiagoak baitira.

Nekazaritza-sektorean, teknologia horien erabilerak oso ehuneko txikiak ditu; hala, telefono mugikorrean ehuneko handiena du (% 31,8), eta posta elektronikoa txikiena (% 3,3), eta tartean ordenagailuak (% 5,1) eta Internet (% 3,6) daude. Arrantza-sektorean, aitzitik, ehunekoak handiagoak dira; hartara, telefono mugikorrak % 62,5 erabiltzen dira, % 8,8 posta elektronikoa, % 45,8 ordenagailuak, eta % 6,8 Internet.

1. grafikoa: Informazioaren eta komunikazioaren teknologietako hornikuntzak, jarduera-azpisektoreen arabera (ehunekotan).



Iturria: Eustat.

Azkenik, baldin ustiatzearen eta itsasontzien tamaina hartzen bada kontuan (aldagai horrek funtsezko ezberdintze-elementu bat sartzen du), tamaina txikikoek, hau da, 0 eta 9 langile bitartean dutenek, oso hornikuntza gutxi dute. Hala, % 31,8k telefono mugikorra dute, eta % 3,3k posta elektronikoa, eta, tarteko ehunekoekin, % 5,1k ordenagailuak dituzte, eta % 3,5k Interneteko konexioa.

Ustiatze eta itsasontzi handietan (10 langile edo gehiago), aldiz, hornikuntzen batez bestekoak nahiko zifra handiagoak ditu. Hala, aurreko hurrenkera berean, % 83,9k telefono mugikorrak dituzte, eta % 29,8k posta elektronikoa, % 75,4k ordenagailuak dituzte, eta % 26,7 Interneteko konexioa.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 017 500 Faxa: +34-945 017 501 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: José Miguel Escalada

Tel.: +34-945 017 507. Faxa: +34-945 017 501

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es